

## **Azaroaren 20an, Haur eta Nerabeen Eskubideen Egun Unibertsala**

Gaur goizean ekitaldi hunkigarria egin da Andoaingo Udaleko pleno aretoan, non Maider Lainez alkateak, ordezkari politikoeak, Hezi Zerbeko langileak eta Andoaingo hiru ikastetxeetako nerabeek hartu dute parte.

Maider Lainez alkate eta Gizarte Zerbitzuen arduradunak nabarmendu du "ekitaldi honen bidez Andoaingo Udalak haurren eta nerabeen eskubideen defentsarekin duen konpromiso handia adierazi nahi duela, Andoain Haurtzarolari Tratu Ona emateko Udalerri Konprometitua delako. Konpromiso horren adierazle, igande honetan, azaroaren 20a, ospatuko den Haurren Eskubideen Nazioarteko Egunaren adierazpena adostu dugu".

"Joan den ikasturtean, Udalak, hainbat eragilerekin, komunitatearekin eta Hezi Zerb elkartearen eta Educo Fundazioaren laguntzarekin, aurrerapauso handiak eman zituen ANDOAIN HAURREN TRATU ONAREN ALDEKO TOKIKO PLANA sortuz. Plan hau abian jartzen ari da, besteak beste, Haurren Eskubideen aldeko Nazioarteko Eguna ospatuz eta ikusaraziz", informatu du Lainezek.

Horren harira, Ibai Narbarte Tratu On elkarteko koordinatzaile eta Hezi Zerb elkarteko kideak jakinarazi du "Andoaingo Lehen Hezkuntzako haurrek eskumuturreko berdeak banatuko dituztela, ondo tratatuta eta babestuta sentiarazten dieten pertsoneri".

Gainera, "ikastetxeetan esku berdeak marraztuko dituzte etxeetan jartzeko, eta Ludotekatik eta Gazte Lokaletik eskuak marraztuko dituzte, hainbat udal gunetan jarritz".

Alkateak adierazi duenez, "Andoaingo Udalak bat egin nahi izan du ekimenarekin, eta bigarren hezkuntzako lehen eta bigarren mailako ikasleekin batera, berak eta ordezkari politikoeak beren eskuak marraztu eta udaletxean jarriko dituzte, Andoainen tratu onarekin eta haurren babesarekin duten konpromisoaren erakusgarri".

Alkateak amaiera eman dio ekitaldiari, eta eskerrak eman dizkie nerabeei, gerturatzeagatik eta eragile aktiboak direla gogorarazteagatik, bai eta eskola-komunitate osoari eta ospakizun hau posible egin duten eragile guztiei ere.

## **20 de noviembre Día Universal de los Derechos de Niñas, Niños y Adolescentes**

Esta mañana se ha celebrado un emotivo acto en el salón de plenos del Ayuntamiento en el que han participado la alcaldesa Maider Lainez, representantes políticos, personal de Hezi Zerb y adolescentes de los tres centros escolares de Andoain.

La alcaldesa y responsable de los Servicios Sociales, Maider Lainez, ha destacado que "mediante este acto el Ayuntamiento de Andoain quiere manifestar su férreo compromiso con la defensa de los derechos de las niñas, niños y adolescentes, de forma que Andoain destaque por ser un Municipio Comprometido con el Buen trato a la Infancia. Como muestra de dicho compromiso hemos acordado la declaración por el Día Internacional de los Derechos de la Infancia que se celebrará este domingo 20 de noviembre".

"El pasado curso, el Ayuntamiento, en colaboración con diferentes agentes, con la comunidad y con el acompañamiento de la asociación Hezi Zerb y de la Fundación Educo dieron grandes pasos con la creación del plan local "ANDOAIN POR EL BUEN TRATO EN LA INFANCIA", el cual se está poniendo en marcha entre otras acciones, mediante la celebración y visibilización del Día Internacional por los Derechos a la Infancia", ha informado Lainez.

En este sentido, Ibai Narbarte, coordinador de Tratu On y perteneciente a la Asociación Hezi Zerb ha informado que "con motivo de esta celebración, las y los niños de primaria de Andoain van a repartir pulseras verdes como símbolo de buen trato y protección a aquellas personas que les hagan sentirse bien y protegidas y protegidos".

Además, "en los centros educativos van a dibujar sus manos en color verde para colocarlas en las casas y desde la Ludoteca y el Gazte Lokala dibujarán sus manos colocándolas en diferentes espacios municipales".

La alcaldesa ha señalado que "el ayuntamiento de Andoain se ha querido sumar a dicha iniciativa y junto a estudiantes de primero y segundo de secundaria, ella misma y las y los representantes políticos van a dibujar sus manos y ponerlas en el Ayuntamiento, como muestra de su compromiso con el buen trato y la protección a la infancia en Andoain".

La alcaldesa ha finalizado el acto "agradeciendo a las y los adolescentes, el acercarse y recordarnos que son agentes activos, así como a toda la comunidad escolar y a todos los agentes que han participado y han hecho posible esta celebración".